



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko otsailaren 26a

17 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, etxebizitzaren arloko alokairua eta bioklimatismoa sustatzeko ekintzei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeek aurkeztua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 10eko 3/1998 Foru Legeko 16. artikulua aldatzekoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Foru Lege proposamena, toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).
- Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (7. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Senatuaren eraldaketari eta autonomia erkidegoek Europar Batasunean izan beharreko partehartzeari buruz Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Fustiñanan industri hondakinak berreskuratu eta baloratzeko zentro bat instalatzeko prozedurak geraraz ditzala, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da “El Bocal” multzoa interes historiko eta kultureko ondasun deklaratzeko behar diren urratsak eman ditzan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea bete dezan, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (11. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Beraingo Osasun Etxeko pediatria-zerbitzuaren egoerari buruzkoa, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Foru Komunitateko administrazio orokorrak errentan hartuta dituen lokalei buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Osasunbiderako euskara normalizatzeko plan bat eskatzeko aurkezturiko eskaerei buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (15. or.).
- Galdera, Irurtzango Udalak saihasbide bat eraikitzeke eginiko proposamenari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (16. or.).
- Galdera, Fustiñanan zerri hiltzako eta minda-putzuetarako dagoen zangari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (17. or.).
- Galdera, Osasunbidea eta Unibertsitate Klinikaren arteko kontzertuaren aldaketari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (18. or.).
- Galdera, Ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetako itzarote-denborei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (19. or.).
- Galdera, Volkswagen, UGT, CCOO eta Nafarroako administrazioaren ordezkarien artean hitzarmenaren negoziazioan jorratu beharreko gai batzuei buruzko bilera egiteari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (19. or.).
- Galdera, N-121-A errepideko Bera-Behobia zatirako epe laburreko soluzioren bat aurreikusteari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (20. or.).
- Galdera, Doneztebetik Leitzarako zatia hobetzeko aurreikusitako ekintzei buruzkoa, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Igualatorio Médico Quirúrgico de Navarra (IMQ) aseguru-konpainiarekin hitzarmen berria sinatzeari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (21. or.).
- Galdera, Iruñeko Inquinasa-Vantico fabrikari dagoen labe piroligikoan errausten diren hondakinei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean osasun-hondakinen kudeaketa gaur egungo egoerari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (23. or.).
- Galdera, Fustiñanan dauden minda-putzuei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (23. or.).
- Galdera, Klima-aldaketari aurre egiteko estrategiak betetzeko aurreikusitako ekintzei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (24. or.).
- Galdera, Bertako karramarroa berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (24. or.).
- Galdera, Bonelli Arranoa berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (25. or.).
- Galdera, Ugatza berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (25. or.).
- Galdera, Hartz arrea berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (26. or.).
- Galdera, Zaraitzu ibarreko basoetako oihanzaintza-lanei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (26. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganbarako 2002rako plantilla organikoa eta 2001eko abenduaren 31n haren zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda (27. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzekoa**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko martxoaren 1eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proiektua 2002ko

otsailaren 4ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko martxoaren 1eko eguerdiko**

**hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proiektua 2002ko otsailaren 4ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, etxebizitza arloko alokairua eta bioklimatismoa sustatzeko ekintzei buruzkoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeek etxebizitza arloko alokairua eta bioklimatismoa sustatzeko ekintzei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**Lehena.-** Etxebizitza arloko alokairua eta bioklimatismoa sustatzeko ekintzei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin argitzea.

**Bigarrena.-** Aipatu Foru Lege proposamena premiazko prozeduraz bideratzea.

**Hirugarrena.-** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Etxebizitza arloko alokairua eta bioklimatismoa sustatzeko ekintzei buruzko Foru Lege proposamena**

Hutsik dauden etxebizitzak merkatuan sar daitezten lortzeko zenbait neurri zabaldu beharko dira, besteak beste, etxebizitza horien alokairua sustatzea. Horretarako, administrazioak laguntza eman behar du, kudeaketa, aholkularitza eta diru laguntzak eskainiz, etxebizitza errentan ematen

duenak segurtasuna izan dezan eta errentan hartu nahi duenak aiseago topa eta diru laguntzak jasotzeko aukera izan dezan. Orobat, errentarako araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitza sustatzeari ekin eta ekin behar zaio, sustapenaren bitartez diruz lagunduz ez ezik, premia handiena duten errenta hartzaileei ere dirulaguntzak emanaz ere.

Bestalde, bidezkoa da bultzatzea eraikuntza arkitektura bioklimatikoaren oinarriak aintzat hartzen dituzten babes ofizialeko etxebizitza sustapena, eraikinetan energia aurreztu eta erosotasuna areagotzera bideratuta dagoenean eta haien diseinua inguruko egutera, ikusmira eta klimatologia baldintzen arabera denean.

Horrek guztiak lagunduko du, eta ez gutxi, etxebizitzak eskuratzen eta eraikuntzaren sektorearen kalitatea hobetzen.

#### **1. artikulua.** Alokairuaren sustapena.

Beste neurri batzuen artean, Nafarroako Gobernuak sustatu egingen du etxebizitza hutsak errentan ematea, eta horretarako zerbitzu berezi bat ezarriko du, aholkularitza eskaintzeko, errentarako etxebizitza eskaintza eta eskaera jasotzeko, jabe batzuen erreparatuak arintzeko –ordainketak ez jasotzeko eta kalteak izateko arriskuari aurre egingen dioten aseguruak kosturik gabe eskainiz-, eta errentarako diru laguntzak emateko, etxebizitza errentan hartzen duenak eta prezioak zenbait baldintza betez gero, hala nola urriaren 2ko 276/2001 Foru Dekretuan arauz ezarritakoak; aipatutako jarduketaren kostuari (alegia, zerbitzua abian jartzea, aseguruak eta errentetarako dirulaguntzak barne) gehitu egingen zaizkio araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak errentan hartzeko dirulaguntzak.

#### **2. artikulua.** Bioklimatismoaren sustapena.

Nafarroako Gobernuak hauxe sustatuko du: etxebizitzak eraikitzean energia aurrezteko neurriak aintzat har daitezten, erabiltzen diren materialak –fabrikatu, erabili eta deuseztatzean– ez daite-

zela izan osasunerako eta ingurumenerako produktu kaltegarriren sorburu, energia berriztagarriak erabil daitezzen eta ingurune baldintza klimatikoen aprobetxamendua lortzeko. Ildo horretan jardutearren, azterlan zientifiko zorrotzak egiteko eskatuko da eta eraikuntzari buruzko oinarriko araudiak eskatzen duenaz gain obra unitate gehigarriak ezarriko dira. Obra unitate berri horien prezioak ez du eraginik izanen erosi edo errentan hartzen dutenengan, prezio mugatuko etxebizitzetan ezarriko baitira. Beraz, kostuari obra unitate horiek direla-eta gehitutakoa ordaintzeko dirulaguntzen beharra dago.

#### **Xedapen gehigarria**

Nafarroako Gobernuak Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuetan sartuko ditu foru lege honetatik heldu diren konpromisoak betetzeko behar diren kontusailak.

#### **Xedapen iragankorra**

Sustapen neurri hauek 2002. urtean aplikatzeko, Nafarroako Gobernuak bi kreditu berezi eskatuko ditu, 2.400.000 eta 1.800.000 eurokoak, hurrenez hurren, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren beharrei erantzuteko etxebizitzaren alokairuaren eta bioklimatismoaren arloetan. Kreditu berezi horiek finantzatzeko dira 2002rako luzatutako 2001eko aurrekontuko "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" izeneko 11400-8700-000000, 11200 proiektua kontusailaren dirusarreraren kargura.

#### **Azken xedapena**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean izanen du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 10eko 3/1998 Foru Legeko 16. artikulua aldatzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 10eko 3/1998 Foru Legeko 16. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 10eko 3/1998 Foru Legeko 16. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

**Bigarrena.-** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 10eko 3/1998 Foru Legeko 16. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Foru Legearen 44.26 artikulua dio Nafarroak eskumen osoa duela lanbide elkargoen eta lanbide tituludunen jardueraren gaitan, legeria orokorrari jarraikiz.

Abenduaren 22ko 380/1997 Foru Dekretuaren bidez Lehendakari eta Barne Departamentuari esleitu zitzaizkion lanbide elkargoen arloan abuztuaren 1eko 1323/1997 Errege Dekretuak Foru Komunitateari transferituriko eginkizunak.

3/1998 Foru Legea Estatuko oinarriko legeria garatzeko aldarrikatu zen, eta bertan zehazten dira lanbide elkargoen araubideak Nafarroan dituen berezitasunak.

Espaniako Konstituzioak ezartzen du berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioek arautuko dutela administrazio publikoan sartzeko prozedura, eta lanpostu hutsak betetzeko sistemak ezarriko direla lehia librean oinarrituz eta

ezinbesteko baldintza izanik kasuan kasuko lanbidean aritzeko behar den titulazioaren jabe izatea.

Beraz, administrazioan lanean aritzeko ez da baldintza gisa ezartzen inongo lanbide elkargotako kide izan beharra.

**1. artikulua.** Nafarroako Lanbide Elkargoetako buruzko apirilaren 10eko 3/1998 Foru Legeko 16. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean: "Lanbide batean libreki eta erakunde pribatuetan aritzeko, ezinbestekoa izanen da komunitate honetako lanbide elkargo bateko kide izatea, salbu eta beste lurralde bateko lanbide bereko elkargo batekoa dela egiaztatzen baldin badu."

**2. artikulua.** 16. artikuluari beste idatz-zati bat, 3.a, gehituko zaio, testu honekin: Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzuan, edozein arlo-

tan, aritzen diren profesionalentzat borondatezkoa izanen da komunitate honetako lanbide elkargo bateko kide izatea".

#### **Xedapen iragankorra**

Lanbide elkargoek foru lege honetan ezarritakoari egokitu beharko dituzte estatutuak.

#### **Azken xedapenak**

**Lehena.** Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau betearazteko behar diren arauzko xedapenak eman ditzan sei hilabete epean.

**Bigarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa**

### **ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145, 149 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzko

Foru Lege proposamena premiazko prozeduraz bideratzea.

**Bigarrena.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Toki Administraziooko Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2002ko martxoaren 18ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa**

### **ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2001eko irailaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**Lehena.** Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamena premiazko prozeduraz bideratzea.

**Bigarrena.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Gizarte Gaietako Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2002ko martxoaren 18ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, Senatuaren eraldaketari eta autonomia erkidegoek Europar Batasunean izan beharreko parte-hartzeari buruz Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruzkoa**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Senatuaren eraldaketari eta autonomia erkidegoek Europar Batasunean izan beharreko parte-hartzeari buruz Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruz aurkeztutako jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **JABELDURAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 179. artikulua eta hurrengo babesean, ondoko jabeldura aurkeztu du Osoko Bilkuraren aurrean tramita dadin. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari jabeltzen gatzazkio jakiteko zein diren Nafarroako Gobernuaren jarrera eta proposamen zehatzak, Senatuaren eraldaketari eta autonomia erkidegoek Europar Batasunean izan beharreko parte-hartzeari buruz Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruz.

Eskariaren zioak

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak bere harridura eta interesa erakutsi nahi du Nafarroako Gobernuak Lehendakariak joan den otsailaren 12an egindako

adierazpenak direla eta; izan ere, Senatua lurralde-ordezkaritzako benetako ganbera bihurtzearen aldeko jarrera erakutsi eta, halaber, hori lortzeko Hauteskundeei buruzko Legea aldatzeko beharraz ere mintzatu zen. Orobat, autonomi erkidegoetako ordezkariak Europar Batasunean Estatuko ordezkariekin batera egotea bideratzearen alde egiten zuen.

Parlamentuko Talde honek ez duenez ezagutzen zein den Nafarroako Gobernuak horri buruz aurrera eraman nahi duen politika orokorra, ez eta zein diren ere helburu horiek lortzeko –funtsezkoak autonomi erkidegoek Espainiako bizitza politikoan gehiago parte hartzeko– proposatzen dituen neurri zehatzak, egokia da, gure ustez, horri buruzko eztabaida bat egitea Parlamentuan, ondoren proposatzen dugun jabeldura oinarri harturik.

Jabeldura proposamena

Nafarroako Gobernuari jabeltzen gatzazkio ezagutzeko zein den bere jarrera ofiziala Senatuaren eraldaketari eta autonomia erkidegoek Europar Batasunean izan beharreko parte-hartzeari buruz; halaber, jakin nahi dugu zein diren proposatuko dituen neurriak, legegintzaldi honetan Gorte Nagusietan duen pribilegiozko egoeraz baliaturik –batzutan UPN eta bestetan PP baita–, aldaketa horiek aurrera eramateko.

Iruñean, 2002ko urriaren 13an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Fustiñanan industri hondakinak berreskuratu eta baloratzeko zentro bat instalatzeko prozedurak geraraz ditzala**

### *FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Fustiñanan industri hondakinak berreskuratu eta baloratzeko zentro bat instalatzeko prozedurak geraraz ditzala".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Askotariko Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Milagros Rubiok, mozio hau tramitatzea eskatzen dut, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta puntuka bozka dadin:

Zioen azalpena:

Nafarroako Gobernuak udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratu zuen, uztailaren 2an, Fustiñanan industri hondakinak berreskuratu eta baloratzeko zentroa eraikitzea. Fustiñanako Udala entzun zen kaltetutako herri gisa.

Oporraldi garaian onetsi eta argitaratu zen deklarazio hori (abuztuaren 10ean eman zen argitara); gainera, dirudienez, hala adierazi baitute Fustiñanako zinegotziek, alkateak ez zien erakutsi proiektua. Bestalde, zentzuzkoa dirudi ukitutako beste udal batzuk ere entzun behar zirela.

Proiektatutako industria horrek, Hidronorrek eskatutako ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanaren arabera, 236 produktu tratatuko ditu; besteak beste, hauek: medikuntza edo albaitaritza zerbitzuetako hondakinak, obra-hondakinak, tamaina handiko hondakinak, kautxua, pilak eta bateriak, araztegi-tako lohiak, metalak ekoiztean eta transformatzean sortutako hondakinak, industria kimikoak, argazkigintzakoak eta

inprimategien arlokoak sorturiko hondakinak, eta "beste batzuk". Substantzia arriskutsuen artean, hauek azpimarratu behar dira: azido sulfurikoa, azido klorhidrikoa, hondakin agrokimikoak, hidrokarburoak, galipotak, merkuriodun lohiak, amianto zein zianurodun lohiak, pestizidak, etab. Galdetu beharra dago ea jarduera industrial oso apala duen nekazaritza eskualde batek zergatik jasan behar duen horrelako zentro bat; zentzuzkoagoa litzateke horrelako zentroak, beharrezkoak izanez gero, hondakin horiek sortzen diren gunetatik gertu ezartzea.

Gainera, Erriberan badira osasunarentzat eta/edo ingurumenarentzat gogaikarriak eta kaltegarriak diren beste jarduera batzuk, eta horiek ez dakarkioten onura nabarmenik Erriberako gizarte-ari. Aipatzekoak dira Bardeako tiro poligonoa, Bardearen ondo-ondoan proiektatutako turismo gunea (biosferaren mundu erreserbaren barreran sartuko al dira bi horiek?), Castejóngo zentral termikoa, El Culebreten haragi irinak biltegitza... eta orain Fustiñanako zentro hau. Horretaz guztiaz gain, gertu, Los Arcosen eta Pitillasen hain zuzen, hondakinak berreskuratzeko zentro bat eta errauste-labe bat egiteko proiektuak ditugu; beraz, aurrean daukaguna atsekabegarria da. Jarduera guztiok, gainera, kaltegarriak izan daitezke gure ingurumenarentzat eta/edo inguruko herrientzat. Baina, horrez gain, kaltegarriak dira nekazaritza produktu ugari nahi adinako kalitatea eta izen ona lortzeko, eta horiek ongi saldu ahal izateko; produktu horietako batzuk jatorrizko deitura dute eta Nafarroako Erriberak harro erakusten ditu.

Gure ustez, Nafarroako Gobernuak ez du begirunerik gure lurrarekin; izan ere, jarduera eta industria ugari ezarri bai, baina ia lanposturik ez dute ekartzen, eta, gainera, nekazaritzako gure produktuen izen onari kalte egiten diote; horrez gain, gure natura eta bizi kalitateari kalte egiten ahal diote.

Halaber, hondakin toxikoen deusezte politika bat aplikatu behar dela uste dugu inongo dudarik gabe, eta produkzio metodoak osasungarriagoak behar dutela ere uste dugu. Hala ere, orokorrean, zentzuzkoagoa da horrelako hondakinak administrazioak edo haren mendeko enpresa publikoak

kudeatzea, eta, betiere, sortzen diren lekuetatik gertu kokatutako instalazioetan.

Hori dela eta, hurrengo puntu hauek eztabaidatzea eskatzen dugu eta banaka bozkatzeari erabaki proposamenak:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio geldiaraz ditzala, berehala geldiaraz ere, Fustiñanan industri hondakinak berreskuratu eta baloratzeko zentroa eraikitzeko abian diren prozedurak.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio lehenbailehen igor diezaiela Tutera, Cabanillas eta Fontellaseko udalei, eta Fustiñanakoari ere bai, aipatu zentroari buruz duten informazio oro.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Tutera, Cabanillas eta Fontellas eta Fustiñanako udalei, prozesua gelditu arte, entzunaldia emateko Fustiñanako zentroari buruz.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio errespetatu eta aintzat har ditzala Nafarroako Erriberaren ingurumena eta hango herritarren osasuna, eta, horrela, susta ditzala, lurralde horretarako, gure nekazaritza produktuen izen ona kaltetuko ez dituzten jarduerak, eta natura eta osasunari kalte eginen ez dioten jarduerak.

5.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio neurria har ditzala gutxi-naka gai toxikoak desagerraraz ditzan prozesu industrialetatik. Horiek dauden bitartean, eragin negatiboak arintzeko, neurri hauek iruditzen zaizkigu egokiak: hondakinen kudeaketa publikoa, tratamendu zentroak hondakinak sortzen diren lekuetatik gertu jartzea, eta Hondakinen kudeaketari buruzko plan integrala zorrotz betetzea.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da “El Bocal” multzoa interes historiko eta kulturaleko ondasun deklaratzeko behar diren urratsak eman ditzan**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da “El Bocal” multzoa interes historiko eta kulturaleko ondasun deklaratzeko behar diren urratsak eman ditzan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat, Biltzarreko Osoko Bilkuran mozio bat tramitatzeke eskatu du, “El Bocal” multzoa interes historiko eta kulturaleko ondasun deklaratzeari buruzkoa.

Ebro ibaiari eta, zehazkiago, Ubide Inperialari lotutako azpiegiturak, Fontellasko udalerrian dauden “El Bocal” izenekoak, hondatzen ari dira etengabe, eta arazoak administrazio publikoen erantzuna behar du. Azpiegitura horien multzokoak dira Karlos V.aren Jauregia, antzinako Uhteen Etxea, Karlos V.aren Presa, Lantegiak, Biltegiak eta langileen eta zaindarien 40 etxebizitzak, baita landa finka bat ere, 46 hektarea baino gehiagokoa.

Aipatutako eraikin gehienak aspaldidanik erabiltzen ez direnez, hondatzen joan dira, aurritan egoteraino, kasu batzuetan. Era berean, landa eremuak eta inguruneak ere kaltetu eta hondaturik daude, bai ibaiaren bai basoaren kontserbazio-

rako, lehengoratzeko eta hobetzeko gutxieneko zainketa eta arreta faltaren ondorioz.

Jakina denez, ondasun horiek guztiak Ingurumen Ministerioaren menpeko Ebroren Konfederazio Hidrografikoari daude atxikirik eta, beraz, Estatuko ondare publikoaren zati dira.

Nafarroako sozialiston iritziz, ondare publikoaren ondasunetatik gizarteak erabilgarritasuna eta errentagarritasuna lortzeko moduak bilatzeak administrazio publikoen helburu behinenetako bat izan beharko luke, eta beharturik daude ondasun horiek kokaturik dauden udalerrien eta eskualdeen beharrizan ekonomiko eta sozialen mende jartzera, horixe baita haien betebeharra. Horregatik, aferan zerikusia duten administrazioek lankidetzak hitzarmen bat gauza dezaten nahi dugu, Estatuko titularitateko ondasun hauen intereseko obra eta zerbitzuak kudeatzeko, eta Estatuak ere parte hartu beharko luke "El Bocal" multzoa Nafarroako Erriberaren zerbitzuan jartzeko behar diren lanak finantzatzeko.

Ez dago ezbaian jartzetik "El Bocal" multzoaren garrantzi historiko, kultural eta ingurumenaren aldetikoa, ezta ere haren erabilerak Nafarroaren, oro har, eta, zehazki, Erriberaren baliabide endogenoen dinamizazioan eragin positiboa izan duela, bai ekonomian bai gizartearen.

Aipatutako arrazoiengatik proposatzen dugu Parlamentuko Osoko Bilkurak honako proposamen hau har dezan:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "El Bocal" multzoa historia eta kultur inereko ondasun deklaratzeko behar diren kudeaketak egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala has ditzan trasteak Espainiako Gobernuaren, Nafarroako Gobernuaren eta Fontellasko Udalaren arteko lankidetzak hitzarmen bat izenpetzeko, "El Bocal" multzoaren lehengoratzeko eta gizarte erabilerarako bost urteko plan bat (2002-2007) prestatzeko, erabilera eta inbertsioen programak eta exekuzioaren kronograma aurreikusirik, Karlos V.aren jauregia eta gainerako eraikinak zaharberritzeko eta ingurunea, Tutera-Fontellas ibaiunea barne, ingurumenaren eta hidrobiologiaren aldetik lehengoratzeko helburuarekin, turismo, hezkuntza, kultura, ingurumen, josteta eta aisiaren arloei eta haiekin lotutako zerbitzuei begira. Estatuak inbertsioen kostu osoaren % 80 eta, hortaz, behar den aurrekontuko konpromisoa hartu beharko luke bere gain, urte askotako proiektua izaki.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea bete dezan**

### *NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea bete dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta

bozketa Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduen 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuekin bat, honako mozio hau aurkeztu du.

1994ko irailean, Nafarroako Parlamentuak Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzendari bat onetsi zuen, herritarrei eskaini beharreko zerbitzua eta langileen ordura arteko lan baldintzak hobetzeko zenbait neurri aurreikusten zituen. Proposatutako neurri horien artean honakoak aipatuko ditugu:

– Basoko suteei aurrea hartzeko plan berezi bat prestatzea eta basoko pisten, sarbideen eta bestelako aire zein lurreko azpiegituren sare antolatua ezartzea.

– Su-itzaltze eta salbamendu zerbitzu horretako langileei administrazioetako gainerako langileen estatutu orokorra aplikatuko zaie, behar diren berezitasunekin.

– Foru Komunitateko suhiltzaile parke zentral bat eraikitzea, besteen lagungarri izan dadin eta Iruñeko herritarrei laguntza emateko denborak hobetu ditzan, hiriaren mendebaldean kokaturik eta 795 milioi pezetako inbertsioarekin.

.Su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuaren bila-kaera sustatzea, profesionalen eta boluntarioz osaturiko eredu mistoa bihurtu dadin, beste autonomia erkidego batzuetan eta Europako beste zenbait herrialdetan den bezala.

– Lesaka, Leitza eta Berako udalekin hitzarmenak izenpetzea boluntario taldeei buruz, hasierako laguntza eman dezaten beren udalerrietan eta eragin esparruan, eta helburu bereko hitzarmenak sinatzea Agoitz, Gares, Viana eta Goizuetako udalekin ere.

– Suhiltzaile profesionalen parkeetatik urrun dauden herrietarako antzeko hitzarmenak izenpetzeko aukera aztertzea.

– Aldameneko erkidegoekin, alegia, Errioxarekin (Kodes Mendietan aritzeko) eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin (Irundik Bortzirietan aritzeko), elkarri laguntzeko eta elkarren lankidetzarako hitzarmenak izenpetzea.

– Prestakuntzari dagokionez, Nafarroan dagoen arazoa da ez dagoela behar adinako plantillarik prestakuntza hori aurrera eramateko. Ezin da parke bakoitzera bisitan joan bost edo sei aldiz, langile guztiei ezagupen berberak irakasteko eta gauza bera errepikatzea parke guztietan.

Su-itzaltze eta salbamendu Zerbitzuaren plan zuzendari hori onetsi zenetik zortzi urte iraganik, zerbitzuaren kalitatean eta langileen lan baldintzetan aurreikusi ziren hobekuntzak ez dira gertatu.

Horregatik guztiatik aurkeztu da erabaki proposamen hau:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren plan zuzendari hori bete dezan eta suhiltzaileen parke zentral bat ezar dezan Foru Komunitatean, suhiltzaileen lan baldintzak hobeto daitezkeen, plantilla organikoaren arloko aurreikuspenak bete daitezkeen eta hain arrisku eta erantzukizun handiko zereginetan aritzeko behar den prestakuntza eman dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du planaren betetze maila azter dezan eta Su-itzaltze Zerbitzuaren plan zuzendari berri bat egin dezan, orain arte bete ez diren alderdiak eta zerbitzuaren beraren ordezkarien eskaerak ere harturik bere baitan.

Iruñean, 2002ko otsailaren 14an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Beriaingo Osasun Etxeko pediatria-zerbitzuaren egoerari buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI FÉLIX M<sup>a</sup> TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak Beriaingo Osasun Etxeko pediatria-zerbitzuaren egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Taberna Monzónnek, Parlamentuko Erregela-

menduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun dakion:

Beriaingo Osasun Etxean, pediatria-zerbitzuak ezin dio lan guztiari aurre egin. Zerbitzu horrek lanaldi erdiko langile bat besterik ez du, eta hori ez da nahikoa 0 eta 14 urte bitarteko 150 pertsona baino gehiagoren beharrei erantzuteko. Egoera horren ondorioz, hitzordua 5 egun baino gehiagoko atzerapenarekin ematen ari dira

Hori horrela, hauek jakin nahi nituzke:

Jabetzen al da kontseilari jauna egoera hone-taz?

Aipatutako hutsuneari aurre egiteko, zer neurri aurreikusitu ditu?

Iruñean, 2002ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

## **Foru Komunitateko administrazio orokorrak errentan hartuta dituen lokalei buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI CARLOS CRISTOBAL GARCIA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak Foru Komunitateko administrazio orokorrak errentan hartuta dituen lokalei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko eledun Carlos Cristóbal jaunak, Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat, galdera egin du Foru Komunitateko administrazio orokorrak errentan harturik edo jabetzazkoa ez den beste edozein araubidetan dituen lokalez eta urtean horien truke ordaintzen duenaz. Galdera hori tramitatu eta idatziz erantzutea eskatu du.

Kontuen Ganbarak, Nafarroako kontu orokorren urteko azterketa eta zentsura txostenean,

azken urteotan nabarmendu du Nafarroako Gobernuaren jabetzako ondasun higigarrien inbentarioa osatu gabea dela eta ez direla bat heldu ondasunen higiezin ezin eginiko inbentarioa eta horien kontabilitate-balioak, eta horrek oztopatzen du foru ogasunaren ondare egoeraren balantzea aztertzeko aukera, eta agerian uzten du nola baiteko "nahasmena" Nafarroako Gobernuaren lokalak eta horien erabileraren berri izaterakoan.

Nafarroako ogasunaren ondarea nola dagoen eta afera honetan erabiltzen diren funts publikoen erabilera zuzena ikusteko baliagarri, bada aurreko gaiarekin zerikusia duen beste bat, alegia, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio orokorrak, Kontuen Ganbarak 2000ko txostenean (guk dakigula, azkena), II. puntuan –"Lanaren norainokoa eta mugak"- emandako definizioaren arabera ulerturik, lokalak errentan hartzeko dituen gastuei dagokiena, Kontuen Ganbarak ere aztertu behar lukeena.

Kezka horren aurrean galdera hau egin diogu Nafarroako Gobernuari:

- Foru Komunitateko administrazio orokorrak, Kontuen Ganbarak 2000ko txostenean (guk dakigula, azkena), II. puntuan –"Lanaren norainokoa eta mugak"- emandako definizioaren arabera ulerturik, Iruñean errentan hartuak dituen edo errentamenduko beste edozein kontratu motaren bidez erabiltzen dituen lokalak zerrenda zehaztua.

- Foru Komunitateko administrazio orokorrak, Kontuen Ganbarak 2000ko txostenean (guk dakigula, azkena), II. puntuan –"Lanaren norainokoa eta mugak"- emandako definizioaren arabera ulerturik, Nafarroako Foru Komunitate osoan, Iruñean izan ezik, errentan hartuak dituen edo errentamenduko beste edozein kontratu motaren bidez erabiltzen dituen lokalak zerrenda zehaztua.

- Foru Komunitateko administrazio orokorrak, Kontuen Ganbarak 2000ko txostenean (guk dakigula, azkena), II. puntuan –"Lanaren irispena eta mugak"- emandako definizioaren arabera ulerturik, Nafarroako Foru Komunitate kanpo errentan hartuak dituen edo errentamenduko beste edozein kontra motaren bidez erabiltzen dituen lokalak zerrenda zehaztu.

- Lokalak zerrenda horietan administrazioak errentan harturiko lokalak erabilerara, posta helbidea eta urtean horietako bakoitzaren truke ordaintzen den prezioa zehaztea ere eskatzen da.

- Nafarroako Gobernuko departamentuek eginkoen kasuan, errentan hartutako lokal bakoitzaren gastua aurrekontuko zein kontusailletako diruarekin ordaintzen den zehaztea.

Iruñean, 2002ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

## **Osasunbiderako euskara normalizatzeko plan bat eskatzeko aurkezturiko eskaerei buruzko galdera**

### **BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Osasunbiderako euskara normalizatzeko plan bat eskatzeko aurkezturiko eskaerei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Joan zen urtarrilaren 30ean, Nafarroako Gobernuan 4893 eskabide erregistratu ziren Osasunbideko arduradunei galdatzeko ospitaleetan, anbulatorioetan eta osasun etxeetan euskara normalizatzeko plan bat abian jar dezan.

Kanpaina honen sustatzaileek, UEMA, ELA, LAB eta OEE (Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak) taldeek, bilera bat eskatu zuten Osasunbideko goi arduradunekin eskaera horretaz hitz egiteko. Baina bilera ez egiteaz gain eskatzaileek ez dute erantzunik jaso.

Horregatik guztiagatik, gure taldeak honako galdera hauek egiten ditu:

1. Zergatik ez diote osasun arloko goi arduradunek erantzunik eman eskaera horri?

2. Aurreikusirik al dute eskatutako bilera egitea?

3. Izan al du Osasun kontseilariak erregistraturiko eskaera horien berri?

4. Aurreikusi al du Osasunbideak eskaera horien edukia aintzat hartzea?

5. Zein pauso eman behar ditu Osasunbideak euskararen egoera normalizatzeko Nafarroako osasun publikoaren arloan?

6. Era berean, 2002ko urtarrilaren 25eko 11. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren zenbait ebazpen, Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostu hutsak merezimendu bidezko lekualdatze lehiaketa erabiliz betetzeko deialdiak onartzen dituztenak. Lanpostu horiek betetzerakoan, horietako asko euskal eremuan eta eremu mistoan daudela jakinik, kontuan hartuko al da merezimendu gisa euskaraz jakitea?

7. Bermatu al dezake Nafarroako Osasun Zerbitzuak herri euskaldunetan lanpostu hutsak beteiko dituzten osasun arloko profesionalak herri horietako hizkuntzaz, hau da, euskaraz, jakinen dutela?

8. Hala ez bada, nola bermatu behar du Osasunbideak herritar horiei kalitatezko osasun laguntza ematen zaiela?

Iruñean, 2002ko otsailaren 11n

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## **Irurtzongo Udalak saihesbide bat eraikitzeko eginiko proposamenari buruzko galdera**

### **BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Irurtzongo Udalak saihesbide bat eraikitzeko eginiko proposamenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

Irurtzunek duen arazorik larrienetakoa da Asteiraingo errepidea deitzen dutenak sortzen duen trafikoa. Errepide horrek trafiko handia eragiten du, eta hori guztia –bereziki handia da trafiko pisuduntzat jotzen dena– herriaren erdigunetik pasatzen da.

Irurtzongo Udalak hainbat urrats eman ditu Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan arazoari aurre egitearren, eta besteak beste, departamentu horri proposatu dio Oskiako harrobiko jarduerak eragiten duen trafiko pisuduna desbideratzeko saihesbide bat egitea. Proposamen hori idatzita jasotzearen, proiektu bat aurkeztu zion kontseilari Palacios jaunari 2000ko ekainean.

Kontuan izanda 2002ko otsailean gaudela eta arazoak konpondu gabe dirauela, eta kontuan izanda ezen planteatutako obrak, udalak berak eginiko kalkuluen arabera, ez lukeela 900.000

eurotik goiti eginen, zail da ulertzen zergatik ez dion jaramonik egin Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Irurtzongo Udaleko taldeek aho batez eginiko eskaerari eta zergatik eman nahi den ontzat Miranda jaunak emandako erantzuna –alegia, obra hori Nafarroako Errepideei buruzko II. Plan Zuzentzailean sartuko dela–, zeren plan indarduna 2005era bitartekoa baita.

Hori dela-eta, gure talde parlamentarioak ondoko galderak aurkeztu ditu:

1. Zer deritzo Nafarroako Gobernuak Irurtzongo Udalak saihesbidea egitearren egindako proposamenari?

2. Ba al du zure departamentuak Irurtzongo erdiguneko trafikoaren neurketari buruzko daturik? Eman datu horiek, ibilgailu motei buruzkoak barne.

3. Ba al darabil esku artean zure departamentuak Irurtzongo Udalaren proposamenaz aparte beste konponbiderik? Halakorik badu, esan zein diren.

4. Zenbat bilera izan ditu zure departamentuak Irurtzongo Udalarekin, planteatu den arazoa konpontzearen?

5. Zerk eragotzi dio Nafarroako Gobernuari gaur arte arazoa konpontzearen esku-hartze praktikoa izaten?

6. Zein fasetan da Nafarroako Errepideei buruzko II. Plan Zuzentzailea?

7. II. Plan Zuzentzaile horren behin-behineko testuan, noizko aurreikusten da Irurtzongo saihesbidearen obrari ekitea?

Iruñean, 2002ko otsailaren 12an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza



## **Fustiñanan zerri hilentzako eta minda-putzuetarako dagoen zangari buruzko galdera**

### **BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Fustiñanan zerri hilentzako eta minda-putzuetarako dagoen zangari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan.

Fustiñanako herrian txerri-azienda handia dago, bertan txerriak hazteko nekazaritzako hainbat ustiategi baitago.

Jarduera hori arazo handiak eragiten ari da: sortzen diren mindak, ustiategi horietan hiltzen diren txerrien gorpuak, hondakinak...

Halatan, gure talde parlamentarioak jakin duenez, Fustiñanako udal mugapean zanga bat ireki du udalak, eta hiltzen diren txerriak botatzen dituzte bertan. Bada, zanga horren inguruetan

sarritan ikusi ahal izan dira txakurrak animalia horien hondakinak jaten. Horrek, berez, arrisku handia sortzen du, zeren animalia horiek gaixotasun larrien eramaile izatera hel baitaitezke. Zanga hori malda batean dago eta, hortaz, litekeena da likidoak iragazi eta irristatzen egotea deskonposizio organikoak dakarren prozesuaren ondorioz.

Gure talde parlamentarioak orobat jakin du ezen sortzen diren mindak botatzeko depositu gisa erabiltzen diren lur-baltsa konpaktatu gabekak, bost futbol zelai adinako zabalera dutenak, eraiki dituela udalak.

Hori dela-eta, gure talde parlamentarioak ondoko galderak aurkeztu ditu:

1. Arlo horretako eskumena duten departamentuek ba al dute Fustiñanako zanga eta baltsa horien berri? Hala baldin bada, esan horren inguruko jarduketarik abiarazi den.

2. Ba al daki Nafarroako Gobernuak jarduketa horien aurkako salaketarik jarri den? Hala baldin bada, esan noiz, zein erakundetan eta zer erabaki hartu den azkenean salaketaren inguruan.

3. Nafarroako Gobernuaren ustez, Fustiñanako Udalaren jarduketak gizakien zein animalien osasunerako eta ingurumenerako kaltegarriak izatera hel daitezke?

Iruñean, 2002ko otsailaren 12an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## Osasunbidea eta Unibertsitate Klinikaren arteko kontzertuaren aldaketari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Osasunbidea eta Unibertsitate Klinikaren arteko kontzertuaren aldaketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, honako galdera hauek egin dizkio Osasun kontseilariari, idatziz erantzun ditzan.

Berriki jakin dugu Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Klinika Unibertsitarioaren arteko ituna aldatu eta Nafarroako Gobernuak onarturiko itunaren tarifak gaurkotu egin direla.

Horren aurrean, eta kontuan harturik Osasun kontseilariak Parkinson gaixotasunentzako osasun laguntzari buruz egin nion galderari emandako erantzuna, hitzez hitz esanez "Departamentuak ez du bestelako neurririk aurreikusi, Nafarroako 2001-2005 urteetarako II. Osasun Planean aurreikusirikoak salbu." Osasun arloko beste entitate

edo administrazioekin gaixo horiek beharko luke ten ebakuntza dela-eta pentsaturik dauden irtenbideen inguruan itunik ba ote dagoen, berriz, erantzuna da "badela itun bat, Donostiako Quirón Klinikarekin. Erietxe hori aipatutako teknika hori erabiltzen duten onenetako bat da, nazio mailan eta nazioartean, esperientzia eta tratamenduaren emaitzak direla eta." Osasun Planaren gaixotasun neurodegeneratiboei buruzko atala aztertuta, ez da ezer aurreikusten osasun prestazio berriak gehitzeaz osasun publikotik bidalitako gaixoentzat Klinika Unibertsitarioarekin eginiko itun baten bitartez.

Bestalde, aurrekontuen proiektuan horretarako aurreikusiriko zenbatekoak, aurrekontu luzatuak badira ere, 28 milioiko gehikuntza zuen Klinika Unibertsitarioarekiko itunerako.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

1. Itunaren aldaketa, eduki zehatza eta irispena, hitzartutakoa, aldaketaren beharra, irizpidearen aldaketa galderaren eta Nafarroako 2001-2005 urteetarako II. Osasun Planaren edukiaren aldean eta lortu nahi diren xedeak, baita ituna osorik igortzea ere.

2. Zein da ituna aldatzeak ekarriko duen kostu ekonomikoa?

3. Itunaren aldaketak dakarren gastua aurrekontuko zein kontusaili atxikiko zaio?

Iruñean, 2002ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## Ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetako itxarote-denborei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetako itxarote-denborei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, honako galdera hauek egin dizkio Osasun kontseilariari, idatziz erantzun ditzan.

1. Azken hiru urteetan, Osasunbideko ospitaleetan, zenbat denbora itxoin behar izaten da, batez beste, ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetara ailegatzetik ospitaleratua izan arte edo senda-agiria jaso arte?

2. Zein da ospitaleetako larrialdi zerbitzuetatik ospitaleratuzera bidaltzen dituzten gaixoen ehunekoak?

3. Azken hiru urteetan zein izan da larrialdietako zerbitzuen eskaeraren bilakaera Nafarroako ospitale bakoitzeko?

4. Larrialdietako zerbitzuen eskaera goraka baldin badao, zein dira arrazoiak?

5. Neurriren bat hartu al da edo hartzea aurreikusitako, zerbitzu horietan saturaziorik ez gertatze-ko eta itxoiteko denbora laburragoa izateko?

Iruñean, 2002ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## Volkswagen, UGT, CCOO eta Nafarroako administrazioaren ordezkarien artean hitzarmenaren negoziazioan jorratu beharreko gai batzuei buruzko bilera egiteari buruzko galdera

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Volkswagen, UGT, CCOO eta Nafarroako administrazioaren ordezkarien artean hitzarmenaren negoziazioan jorratu beharreko gai batzuei buruzko bilera egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

galdera hauek aurkeztu ditu, Industria, Lan, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Joan zen otsailaren 6an zenbait komunikabidetan plazaratutako albiste baten arabera, Volkswagen enpresaren Europako eta Nafarroako arduradunek, UGT eta CCOO sindikatu etako zuzendaritzako kideek eta Nafarroako eta Espainiako administrazioen ordezkariak bilera bat egin zuten.

Informazio horietan adierazten zen topaketa hori Industria Departamentuan egin zela, eta bertan lan hitzarmenaren inguruko gai batzuk, artean erabakitzeke zeudenak, izen zirela hizpide.

Horregatik guztiagatik, gure talde parlamentarioak galdera hauek egiten ditu:

1. Egia al da horrelako bileraren bat egin dela, partaide horiekin, edo bestelakoa egun horietan edo beste batzuetan?

2. Norena izan zen deialdiaren ekimena?

3. Zertaz hitz egin zen bilera hartan? Bileraren gai zerrendaren eta aktaren kopia nahi dugu.

4. Hitz egindako gaien artean baziren lan hitzarmenean erabakitzeko zeuden kontuen inguruak?

Iruñean, 2002ko otsailaren 14an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## **N-121-A errepideko Bera-Behobia zatirako epe laburreko soluzioren bat aurreikusteari buruzko galdera**

### *BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak N-121-A errepideko Bera-Behobia zatirako epe laburreko soluzioren bat aurreikusteari buruz egindako galderaren bidera-pena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak agerraldia egin zuen Nafarroako Parlamentuko Herrilan Batzordean 2000ko maiatzean, N-121-A errepidearen trazaduraren arazoari buruz informatzeko. Harrezkero, eta gaur arte, ez du

ematen Nafarroako eta Gipuzkoako diputazioek arazoa konpontzeko urratsak eman dituztenik, nahiz eta Bortzirietan eta Bidasoa Behean urte asko diren arazo hori pairatzen daramatzatenak (gogoratu behar da 1992an bazela errepide horren ordezkotik hautabideei buruzko azterlan bat).

Hori dela-eta, gure talde parlamentarioak ondoko galderak aurkeztu ditu:

1. Gogoan al du Nafarroako Gobernuak konponbideren bat epe motzean N-121-A errepideko Bera-Behobia bideunerako?

2. Ez al da egia egin beharko litzatekeen obraren ezaugarriei buruzko akordio teknikoa dagoela?

3. Hori hala baldin bada, zer arazok eragozten du behin betiko konponbidea ematea errepide horri?

4. Zer urrats eman dira Gipuzkoako Aldundia-ekin arazoari behin betiko konponbidea bilatzeko? Adierazi noiz egin diren bi aldeen arteko bilera edo komunikazioak eta zertan jarri ahal izan zireten ados eta zertan ez.

Iruñean, 2002ko otsailaren 12an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## Doneztebetik Leitzarako zatia hobetzeko aurreikusitako ekintzei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak Doneztebetik Leitzarako zatia hobetzeko aurreikusitako ekintzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari José Mari

Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Doneztebetik Leitzara bitarteko errepidea tarte batean hobetu zen, baina orain arte ez da besterik egin trazaduraren gainerakoan, egoera kaskarrean badago ere.

1. Zein jarduketa aurreikusi du zure departamentuak tarte horretarako hurrengo ekitaldietan?

2. Ba al ditu Departamentuak obren exekuzio proiektuak?

Iruñean, 2002ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

## Igualatorio Médico Quirúrgico de Navarra (IMQ) aseguru-konpainiarekin hitzarmen berria sinatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Igualatorio Médico Quirúrgico de Navarra (IMQ) aseguru-konpainiarekin hitzarmen berria sinatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hauek egin ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Nafarroako Igualatorio Médico Quirúrgico (IMQ) izeneko aseguru konpainiarekin oinarritzko osasun laguntza publikoa emateko hitzarmen berria dagoela ikusirik, hauxe jakin nahi dugu:

1. Hitzarmen honen eraginpean dauden IMQ-ko aseguratuak kopuru osoa.

2. Aseguratuen kopuruak, oinarritzko osasuneko eskualdez eskualde.

3. Aurreikusirik al dago horietako zenbat atxiki-ko zaizkion familiako mediku edo pediatra bakoitzari?

4. Aurreikusirik al dago giza baliabide gehiago erabiltzea hitzarmen hau gauzatzeko?

5. Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalak baimena izanen al dute aldi baterako ezgaitasun parteak, berresteko parteak, amatasunekoak edo behin-behineko baliaezintasunekoak formalizatzen?

6. Nola egingen dira sendagaien preskripzioak?

7. Diagnosiko probak egiteko eta osasun laguntza espezializatura bidaltzeko itunik al dago?

8. Nola identifikatuko dira IMQ-ko aseguruak sistema publikoan jasotzen duten laguntzaren ondorioetarako?

9. Zein dira hitzarmen horretatik heldu diren konpromiso ekonomikoak?

10. Zein ondorio izanen ditu hitzarmen ekonomiko horrek haren eraginpeko profesionalengan?

Iruñean, 2002ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Iruñeko Inquinasa-Vantico fabrikan dagoen labe piroligikoan errausten diren hondakinei buruzko galdera**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Iruñeko Inquinasa-Vantico fabrikan dagoen labe piroligikoan errausten diren hondakinei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hauek egin ditu, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariak erantzun ditzan:

Hondakin Berezien Kudeaketari buruzko Foru Legeak hondakin bereziak erraustea aurreikusten

du, soilik, behi-aziendaren entzefalopatia espongiformea desagerrarazteko planean sarturiko material arriskutsu berariazkoen eta animalien kasuan. Halere, komunikabideetan agerturiko informazio batean aipatzen da Iruñeko enpresa baten errauste-instalazioak erabili direla hondakin bereziak errausteko.

1. Zein dira Iruñeko Inquinasa-Vantico faktoria-ko labe pirolitikoan errausten diren hondakin motak?

2. Zein dira Ingurumen Departamentuak instalazio horren inguruan hartu dituen kontrol neurriak?

3. Ingurumen arloko zein neurketa egiten dira instalazio horretan?

4. Zein izan dira azken hiru urte hauetan atmosferaren gai kutsakorrei buruz eginiko neurketen emaitzak?

Iruñean, 2002ko otsailaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Nafarroako Foru Komunitatean osasun-hondakinen kudeaketa gaur egungo egoerari buruzko galdera**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Foru Komunitatean osasun-hondakinen kudeaketa gaur egungo egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, galdera hau aurkeztu du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zein egoeratan dago Nafarroako Foru Komunitatean gaur egun osasun-hondakinen kudeaketa?

Iruñean, 2002ko otsailaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Fustiñanan dauden minda-putzuei buruzko galdera**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Fustiñanan dauden minda-putzuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, galdera hau aurkeztu du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Fustiñanan dauden minda-putzuek betetzen al dituzte ingurumen-araudiak ezarritako baldintzak?

Iruñean, 2002ko otsailaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Klima-aldaketari aurre egiteko estrategiak betetzeko aurreikusitako ekin-tzei buruzko galdera**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak klima-aldaketari aurre egiteko estrategiak betetzeko aurreikusitako ekintzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, galdera hau aurkeztu du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zer ekintza aurreikusi ditu Ingurumen Departamentuak klima-aldaketari aurre egiteko estrategiak betetzeko?

Iruñean, 2002ko otsailaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Bertako karramarroa berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzko galdera**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak bertako karramarroa berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, galdera hau aurkeztu du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zer betetze-maila du bertako karramarroa berreskuratzeko planak? Zer ekintza egin dira orain arte eta zer ekintza egingen dira etorkizunean?

Iruñean, 2002ko otsailaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán



## **Bonelli Arranoa berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzko galde- ra**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Bonelli Arranoa berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, galdera hau aurkeztu du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zer betetze-maila du Bonelli arranoa berreskuratzeko planak? Zer ekintza egin dira orain arte eta zer ekintza egingen dira etorkizunean?

Iruñean, 2002ko otsailaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

---

## **Ugatza berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzko galdera**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ugatza berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, galdera hau aurkeztu du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zer betetze-maila du ugatza berreskuratzeko planak? Zer ekintza egin dira orain arte eta zer ekintza egingen dira etorkizunean?

Iruñean, 2002ko otsailaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

---

## Hartz arrea berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzko galdera

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak hartz arrea berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, galdera hau aurkeztu du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zer betetze-maila du hartz arrea berreskuratzeko planak? Zer ekintza egin dira orain arte eta zer ekintza egingen dira etorkizunean?

Iruñean, 2002ko otsailaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## Zaraitzu ibarreko basoetako oihanzaintza-lanei buruzko galdera

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Zaraitzu ibarreko basoetako oihanzaintza-lanei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, galdera hau aurkeztu du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Egiten al da oihanzaintza-lanik Zaraitzu ibarreko basoetan? Egiten badira, nork egiten ditu, eta zer metodologia erabiltzen du?

Iruñean, 2002ko otsailaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

**G Saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**Nafarroako Kontuen Ganbarako 2002rako plantilla organikoa eta 2001eko abenduaren 31n haren zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 18an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Kontuen Ganbarako Lehendakariak, 2002ko otsailaren 11n hartutako erabaki baten bitartez, Erakunde honetako 2002rako plantilla organikoa eta 2001eko abenduaren 31n haren zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

onetsi zuen. Erabaki hori ikusita, hona ERABAKIA:

1. Erabaki horren jakitun dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ERANSKINA  
2002rako Kontuen Ganbarako Plantilla Organikoa

Lanpostua	Zenbat	Euskaraz jakitea	Araubide juridikoa	Maila	Izendapen librea	Esklusi-bitatea	Lanpostua	Maila osagarria	Osagarri berari.
Lehendakaritzako aholkularia	1		K	-	X		-		
Lehendakaritzako idazkaria	1		K	-	X		-		
Idazkari nagusia	1		F	A	X	X	75		5
Auditorea	4		F	A		X	70		
Legelaria	1		F	A		X	45		
Kazetari-itzultzailea	1	X	F	A		X			
Informatikako goi mailako teknikaria	1		F	A		X	20		
Auditoretzako teknikari-kontuhartzailea	1		F	B	X	X	30		20
Auditoretzako teknikaria	11		F	B		X	30		
Auditoretzako teknikaria	1	X	F	B		X	30		
Administratzailea	1		F	C	X	X	33	12	
Administraria	4		F	C			23	12	
Administraria	1	X	F	C			23	12	
Mandataria	2		F	D			15	15	

F: Funtzionarioa

K: Kabineteko behin-behinekoa, izendapen librekoa

## 2. ERANSKINA

2001-12-31n Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

Deiturak eta izena	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Ordoki Urdazi, Luis	A	4	Idazkari Nagusia	Jardunean
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	4	Auditorea	Jardunean
Fuertes Pérez, José	A	6	Auditorea	Zerbitzu bereziak
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	4	Auditorea	Jardunean
Sesma Masa, Francisco Javier	A	5	Auditorea	Jardunean
Esparza Oroz, Miguel M <sup>a</sup>	A	4	Legelaria	Jardunean
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	5	Informatikako Sis. goi mailako tek.	Jardunean
Lanpostu hutsa	A		Kazetari-itzultzaile	
Ezquerro Royo, José Luis	B	4	Auditoretzako tek.a-kontuhartz.	Jardunean
Azcona Díez de Ulzurrun, M <sup>a</sup> Carmen	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Balduz Gil, Elvira	B	3	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Bobadilla Bacaicoa, M <sup>a</sup> Pilar	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Etayo Salazar, Francisco José	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Gil Ochoa, M <sup>a</sup> Antonia	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Irigoyen Olaiz, Lourdes	B	5	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Olaechea Estanga, M <sup>a</sup> Asunción	B	3	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Sola Mateo, M <sup>a</sup> Pilar	B	5	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria	
Martínez Cía, M <sup>a</sup> Isabel	C	7	Administratzailea	Jardunean
Elizalde Elizalde, M <sup>a</sup> Julia	C	4	Administraria	Jardunean
Equiza Maquirriain, M <sup>a</sup> José	C	5	Administraria	Jardunean
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	4	Administraria	Jardunean
Rodríguez Rodríguez, M <sup>a</sup> Mercedes	C	6	Administraria	Jardunean
Zudaire Echávarri, Aurora	C	4	Administraria	Jardunean
Almingol Muñoz, Jesús Emilio	D	4	Mandataria	Zerbitzu bereziak
Zudaire Echávarri, M <sup>a</sup> Trinidad	D	3	Mandataria	Jardunean

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 39,07 euro Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 » Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--